

azken portuko tabernan

garikoitz berasaluze

Inaki Ortiz de Villalba

Nortasun agiria

Gasteizen jaio zen 1971ko abuztuaren 6an. Hiru ikasturte eman zituen Arantzazun eta han zuzendu omen zen. Gaur egun, Lan Harremanak ikasten ari da Bilbon. Baina beste gauza batzuk ditu buruan eta, azterketa garaian kontzertuak izaten dituenek, ez ditu nahi bezain azkar gaintitu ikasturteak. Betagarri taldeko abeslari izateak, berriz, Euskal Herria ezagutzeko aukera eskaini dio, batean eta bestean azken urteotan eman dituzten kontzertu ugarietan.

Gasteizko jailetan jaio zen Inaki, antza, festarako gogoz jaiotzetik bertatik. Bere hitzetan, «barraketan biraka izan zituen nire amak lehen kontrakzioak. Hortik datorkit zoramen guztia. Noriak erotu ninduen zurrerik». Ordudanik Gasteizen bizi izan da, hiruzpalau urtean izan ezik. «OHoko 6., 7., eta 8. maila Arantzazun egin nituen fraideekin. Barnetegi moduan fraideekin joateko aukera izan nuen eta joatea erabaki nuen. Betidanik oso ikasle txarra izan naiz, eta haiek zuzendu ninduten nolabait». Ez zituen nolanahiko irakasleak izan, gainera, Inakik. «Euskarazko klaseak Bitoriano Gandiagak ematen zizkigun. Pello Zabalak Lenguaje, eta Xabier Egañak Arte Plastikoak».

Inakiaren hitzetan, gainera, «oso heziketa ona eman didate. Norbaiti eskertu behar badiot nire euskaldun nortasuna gogoan izatea eta neureganatzea, beraiei eskertu behar diet. Gizarteko klaseak, beti hasten ziren kultura bat, hizkuntza bat eta kokapen geografiko bat genuelako herri bat ginelako gogoratuz. Euskal kulturaren bultzatzaile sutsuak izan dira». Gaur



«Arantzazuko fraideek zuzendu ninduten, nolabait»

egun, Lan Harremanak ikasten ari da Leioan. «Egunero egiten dut joan-etorria. Gasteiztik 4.000 ikasle joaten gara egunero Bilbora».

Lan Harremanak ikastea, ordea, ez da izan Inakiaren txikitako ametsa. Berak artista izan nahi zuen, «teatreroa edo aktorea edo halako zerbait». Musika munduan, Betagarri tal-

dean aritzeak, nolabait, eman dio artista gisa aritzeko aukera. Inakik badaki Euskal Herrian izaten diren kontzertuen artean, Betagarrirenetan egiten direla, oro har, erokeriarik gehien. Edabe majikorik ez dutela dio, ordea: «Musikak berak asko laguntzen du. Gu goian zoroaren moduan eta eguzkitako betaurrekoekin ikustea, gainera, festarako gonbit zuzena da. Jendeak gero eta azkarrago egiten du bat gurekin».

Inakirentzat, gainera, oholtza gainera igotzea da taldearekin aritzearen eta musika egitearen gauzarik onena: «Sentitzen dena izugarria da. Kontzertuaren hasieran emozioa da. Gero jadanik jendearen girora ohitzen zara eta amaiera ere ikusten duzu. Aste osoko tentsioa desagertzen da. Baina hasierako emozioa izugarria da. Kontzertuan erabat sartuta gaudenean, betaurreko beltzak kentzen ditugu eta hori gehiegia izaten da».

Betagarriekin hainbat kontzertu eman arren, taldekideek ez dute sosis jasotzen: «Betagarri enpresa txiki bat da. Ondasun komunitate bat. Etekinak ez dira banatzen, enpresarentzat furgona, gitarrak, bateria eta zenbait gauza berri erosteko erabiltzen dira. Guk ez dugu ogerleko bat ere banatzen. Jendeak ez daki hau, eta uste du aberasten ari garela».

Betagarri Gasteizko mugida musikalean eta alternatiboan loratu den talde bat gehiago da Inakirentzat. 130 musika talde, egundoko sormena eta irudimena duen hiria da Gasteiz: «Mugida alternatiboaren inguruko jende guztia batera ari da lanean intsumisio kontutan, Hala Bedi irrartian, gazte-txean eta abarretan. Honek guztiak gazteria beste ekimen batzuk sortzera bultzatu du».

bat-batean

■ Liburu bat?

Obabakoak.

■ Film bat?

Pulp Fiction.

■ Zenbat diru daramazu une honetan patrikan?

Mila pezeta.

■ Abesti bat?

Si la vida me da palo, Mano Negra.

■ Hiru musika talde?

Red Hot Chili Peppers, Negu Gorriak eta The Clash.

■ Gertaera historiko bat?

Josu Muguruzaren heriotza.

■ Jakirik gustukoena?

Xolomoa Roquefort era.

■ Parrandarako herri bat?

Leśaka sanferminetan, Gasteiz eta Hernani.

infernuko sukaldetik



harkaitz cano

H-rik gabe. Ez dute New Delhirekin zerikusirik. Delicatessenetik omen dator bere izena, bertan zerbitzen denak delikatutik gutxi badu ere. New Yorkeko askakuntza dira Deliak. Erdi supermerkatu eta erdi taberna, urteko 365 egunetan eta 24 orduz irekita dauden lokal bereziak, gehienetan langile hegoamerikar edo asiarrak dituztenak. Egunkariak, fruta, sandwichak, plastikozko kaxatan norberak hartu eta pisuaren arabera ordaintzen diren presazko otorduak. Nik uste European filmatu izan diren amerikar estiloko ro-

ad movie gehienek arrakastarik ez izatearen arrazoia European delirik ez dagoeneko izan daitekeela. Izan ere, deli hauek baitira New Yorkeko atrako eta ika-mika askoren kokalekua. New Yorken bihotzaren lau geletako bat bai, behintzat.

Deliakin edo delirik gabe, espainieraz egindako zinea zorioneko dago azken bolada honetan, frantziar zinemak ere gero eta gutxiagotan lortzen duena lortu baitu: bi film aldi berean New Yorkeko kartelera komertzialean egotea. Julio Medemen *Lovers of the Arctic Circle* eta Alejandro Amenabarren *Open your eyes*, alegia.

Barregura eragiten du hizkuntza orijinalarekiko

erabateko errespetua duten banatzaileek (film guztiak jatorrizko bertsioan eta azpitituloekin eskaintzen dira New Yorken) *Abre los ojos* filmaren kartel orijinala garaipenaren arkupetik nola pasa duten ikusteak. Gure irakurleek gogoan izango duten kartel orlegi abstraktuaren ordez, Penelope Cruzen gorputz osoko argazki hortera bat hautatu dute filma promozionatzeko, istorioaren nondik norakoa identifikatzeko inolaz ere balio ez duena, bidenabar.

Gero esango dute urdaiazpiko iberiarrak ez duela sarbiderik EEBBetan. Deliaren izango da. Zinematan behintzat aurki daiteke jada.

NY-99.04.14

Deli